

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko martxoaren 24a. VIII. urtea. 2.198. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Areson elkarretaratzea egin zuten herritarrek, 20ko lau taldetan banatuta. HITZA

Langileak kalera deitu dituzte Leitzan eta Areson

Jone Lozano aresoarraren atxiloketa salatzeke bi orduko lanuztea deitu dute; 12:00etan elkarretaratzea egingo dute Leitzako Kale Nagusian 03

Gere eta Lemy Peachy Joke-eko taldekideak

«70eko eta 80ko rocka jorratzen dugu, baina dantzarako kutsuarekin»

Tolosaldeko taldeak 'Asian Tiger Mosquito' izeneko hirugarren lana kaleratu berri du 07



Gere eta Lemy azken lana esku artean dutela. REBEKA CALVO

Koldo Izagirreren ustez «lurrak euskararenak dira»

Galtzaundiren eskutik hitzaldi kritikoa eskaini zuen idazleak Tolosako kultur etxean, herenegun iluntzean; hitz gogorrak erabili zituen euskararen egoera aztertzerakoan 02

Larresoroko anai arrebeekin hamabosgarren urteurrena ospatuko dute

Leaburu-Txarama Lapurdiko herriarekin senideturik dago; jaiak apirilaren 3an izango da 06

Amasa-Villabonako jubilatuek badute egoitza berria

Udal ordezkariak bihar inauguratuko dute Salbadore urbanizazioan dagoen egoitza, 13:00etan; herritarrek lokal berria ikusteko aukera ere izango dute 04



HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareia du

Euskararenean 2011ren baitan Joseba Tapiaren kontzertua


Martxoak 25 • Ostirala 20:30ean • Tolosako Topic-en



HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareia du

Bertso afaria

Martxoak 25 • Ostirala • 21:00etan Villabonako Iririntzi Elkartean



HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareia du

Quebec-eko Nicolas Pellerin et le Grands Hurleurs taldearen kontzertua

Martxoak 27 • Igandea • 19:00etan Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean



sarrerak



Galtzaundiko kide batek aurkeztu zuen Koldo Izagirre entzuleen aurrean. HITZA

Inperialismo linguistikoa eta hizkuntza politika bezalako kritika latzak egiten dizkie Koldo Izagirrek Autopsiarako frogak bere azken saiakeran. Tolosako kultur etxean izan zen asteartean.

Hiztun zapalduaren gogoetak

Itzea Urkizu

Quebec-eko Michel Lalonde idazleak 1969an idatzi zuen 'Speak white' poema errezitatuz hasi zuen asteartean, Koldo Izagirrek, kultur etxean eskaini zuen hitzaldia. Lalondek ingelesaren nagusitasuna salatzeke sortu zuen, gaur egun Quebec-eko poema nazionalako bat den hau. Izagirrek gura ekarri nahi izan du sentimendu eta errealitate bertua, *Autopsiarako frogak* izeneko bere azken saiakeran.

Hitzaldian hamaika eta bat aipuri egin zion erreferentzia Izagirrek, eta baita datu historikoei ere. Bide honetan, autodeterminazio linguistikoa beharra nabarmendu zuen behin eta berri: «soberania politikoa behar du euskarak».

Euskarak mendeetan zehar jasadako zapalkuntza izan zuen zutabeetako bat. «Gaztelera inpo-

satur, herri xehearen eskubideak urratzen ziren orain bi mende ere», baieztatu zuen. Jauregieta-ko jauntxoek arotzei eta erremontariei euskaraz egiten zieten, eta abokatuei eta lagunei, berriz, erdaraz. Telesforo Monzonek 1931ko idatzi batean hau euskararen balio eta indarraren adierazle gisa aipatu zuen arren, Koldo Izagirrek justu aurkakoa uste du: «euskarak klase apalen tresna zen, eta nagusiak morroiari euskaraz egitean, gaztelaren eremuan sartzen ez zion uzten; klaseen bidez euskara menperatzen zuten». Hari berari jarraituz, hizkuntza politikari ere egin zion erreferentzia, hizkuntza bat bestearen gainetik jartzeko tresna dela aipatuz. Erretorikaren moral eskasa erabiliz, urteetan zehar euskara zapaldu dutela dio Izagirrek: «Sari entzuten da euskarak eta bere kulturak erakargarria izan behar duela, eta horrekin erakargarri suertatzen dena erdarazko kultura dela esaten ari dira. Antitesia-

ren kategorizazioa da hori». Zapalkuntzaren ildo horretan, beraz, euskaldunok gure hizkuntzaz esan dezakegun guztia demokraziaren aurkakoa dela baieztatu zuen idazleak.

Zapalkuntzaz aritu eta gero, elebitasuna onartzen duten jarra, itxuraz, tolerantetagoak ere aztertut zuten hitzaldian. Elebitasuna defendatzen duenak bestearen existentzia onartu egiten du, baina badaki, Koldo Izagirreraren ustez, bere hizkuntza dela subjektu soziala; elebidunak menderatua inuzente ikusten duela dio.

«Euskararenak dira lurak»

Kultur etxeko hitzaldiaren gakoe-tako bat errepikapena izan zen, zapalkuntza eta mugen estuasun hori transmitituz: «Euskaraz munduko egiten gara; leku bat baldin badaukagu, hori, hizkuntzak emana da», azpimarratu zuen. Honen harira, euskara lurrrari lotua ez dagoela defendatu zuen, euskara ez baita territoria-

la. Euskaldunoi nortasuna lurrrak ematen digula uste dugun arren, Izagirrek alderantzizkoa helarazi zien entzuleei: «Euskarak ematen die herritasuna lurraldeei, euskararenak dira lurrrak, eta ez lurrena euskara». Euskara «nekez itzuliko da bereak ziren leku okupatuetara», eta «iragana idealizatzen dugula» esan izan duten arren, harrasiaren bestaldean ere Euskal Herria dugula defendatu zuen Koldo Izagirrek: «horrek egiten gaitu ilun, euskarari munduan leku bat ematea jasanezina egiten baitzaio ideologia totalitarioari».

Hasi bezala amaitu zuen hitzaldia Koldo Izagirrek, irauin zuen ordu bete pasatxoan entzun zen aldarri errepikatuarekin guztia borobilduz: «euskarak entzungarri eta esangarri izango den geografía politikoa behar dugu, eta garrantzitsuagoa da soberanoak izatea, euskaraz ekoizten den guztia inbaditzen baitu gaztelaniak: Absurdo totala da».

→ Laburrak

Soldadura ikastaroa Peñascal fundazioan

HEZKUNTZA › Peñascal Fundazioak aktiboan dauden langileentzat ikastaroa antolatu du, langileentzako etengabeko heziketarako planaren baitan. *Soldadura TIG* du izena ikastaroak, eta Hobetuz-en %100eko diru-laguntza izango dute ikasleek. Datorren martxoaren 29an hasiko dira eskolak, arratsalde, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko eta informazio gehiago eskuratzeko, 943 67 61 61 telefonora deitu beharko da.

Frontoiko erakusketa atzeratu egin dute

GIZARTEA › Andia Kultur Elkar-teak Beotibar frontoiaren eta Fronton kafetegiaren 75. urteurrenaren harira antolatu duen argazki erakusketa herenegun irekitzeko asmoa zuten arren, arazo batzuk izan zituzten, eta ezin izan zuten kafetegia argazkiz bete. Hori dela eta, azkenik igandean ikusgai izango dira erakusketako argazki guztiak, Fronton kafetegian.

Herri lasterketen inguruko hitzaldia Usabalen

KIROLA › Datorren martxoaren 30ean, asteazkenean, hitzaldia izango da Usabal kiroldegian *10 eta 20 km arteko herri lasterketan parte hartzeko nola entrenatu behar du?* deiturapean. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da hitzaldia.

Bildarratzek hautagaitza aurkeztuko du

POLITIKA › Bihar, martxoak 25, Jokin Bildarratzek datorren maiatzaren 22ko udal hauteskundeetarako bere hautagaitza aurkeztuko du. Ekitaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Plaza Berrian, eta Markel Olano, Gipuzkoako Aldun Nagusia, eta Joseba Egibar, Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakaria ere bertan izango dira.

Hamaikabatek egoitza zabalduko du Tolosan

POLITIKA › Gaur arratsaldean, Hamaikabat alderdiak Tolosan irekiko duen egoitzaren inaugurazio ekitaldia ospatuko du. Ekitaldia Gernikako Arbolan izango da, 19:00etan. Tolosako Hamaikabat alderdiko kideez gain, Pello Gonzalez, Gipuzkoako Aldun Nagusirako Hamaikabaten hautagaia, eta Martin Beramendi, Gipuzkoako Hamaikabaten presidentea, ere izango dira.


Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak lanpostu hau bete behar du:

BANATZAILEA/BUZONEATZAILEA LEITZAN

Lan baldintzak:

Goizeko 7:00etatik 11:00etara, Astean 4 egun. Asteartetik ostiralera.

Interesatuak deitu lehenbailehen **943-30 35 33** telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Guardia Zibilaren presentziaren aurrean, elkarretaratzea 20ko multzotan egin behar izan zuten Areson. HITZA



Ekimenaren bultzatzaileak Trianguloako seinalearen aurrean. A.I.

Lozanoren atxiloketaren harira lanuztea deitu dute Leitzan eta Areson

Jon Goio tolosarraren aurkako euroagindua aztertzeke egun gehiago eskatu ditu Frantziako justiziari

Asier Imaz Politika

Herenegun iluntzean Areson herri batzarra egin zuten. Bertan, 80 lagun bildu ziren. Guardia Zibila ere agertu zen, baina elkarretaratzea debekatzera. Leku publiko bat zela eta baimenik ez zuten, lokalen batera joateko eskatu zien herritarrei Guardia Zibilak. Azkenean, nahiz eta udaletxeko batzar aretoa obretan egon, bertara joan ziren. Bertan, Jone Lozanoren berririk gabe jarraitzen dutela azaldu zuten, inkomunikaturik aurkitzen baita astelehenean atxilotu zuten gaztea.

Herri batzarrean bildutakoek prentsurrekoa egin zuten udaleko eskaileratan, Guardia Zibilaren begiradapean. Ondoren, elkarretaratzea egin zuten 20ko lau taldetan. Talde horiek gainera, elkar ez ikusteko moduan kokatu

rik egon behar izan zuten. Bertan bildutako Aresoko eta Leitzako herritarrek, Jone Lozanoren atxiloketaren aurrean, 12:00etatik 14:00etarako bi orduko lanuztea deitu zuten gaurko. *Konponbide demokratikoaren alde, atxiloketa gehiagorik ez!* goiburupean 12:00etan elkarretaratzea egingo dute Leitzako Kale nagusian. Areson berriz, atzo iluntzean ezohiko batzarra egitekoak ziren.

Jone Lozanoren askatasuna Algortan (Bizkaia) ere eskatuko dute bihar 20:30ean, ikasketak egiten ari zen bitartean bertan bizi baitzen. Atzo, Areson bezala, eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak egin ziren gaztearen atxiloketa salatzeko. Ibarren adibidez, 25 lagun elkartu ziren. Amnistiaren Aldeko Mugimendutik azaldu dutenez, «atxiloketa bat gertatzen denean, herri guztietan elkarretaratzeak egingo dira hemendik aurrera».

Jone Lozanok Frantziako polizia eskuetan inkomunikaturik jarraitzen zuen atzo. Astelehenean atxilotu zuten, eta ez dago bere egoeraren inguruko berririk.

Aresoarrari ETAKo kide izatea

leporatzen die Frantziako Poliziari eta Espainiako gobernua. Berri agentziek hasieran zabaldu zuten, atxiloketa uanean pistola bat, dokumentazio faltsua eta 1.000 euro zeramatzan Lozanok soinean. Atzo berriz, iturri berberak, aresoarrak 48.000 euro gehiago zeramatzala esan zuten; Frantziako Polizia diru horren jatorria zein den ikertzen ari omen da.

'Goito'ren aurkako euroagindua

Jon Goio tolosarraren aurkako euroaginduaren inguruan, honako oharra kaleratu du Amnistiaren Aldeko Mugimendutik: «Frantziako justiziari informazio gehiago eskatu dio. Torturapean egindako Peio Olanoren deklarazioetan oinarritzen da euroagindua eta honen salaketa martxan den konprobatu nahi dute. Euroagindua apirilaren 5ean aztertu dute». Bien bitartean, espetxean jarraitzen du tolosarrak.

Bihar, eskualdeko hainbat herritan preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzeak egingo dira, azken ostirala izaki.

Seinale berriak jarriko dituzte Tolosa hobeto ezagutzeko

Bisitariari zuzenduta badago ere, herritarrek proiektu honen zati izatea da udalaren helburua

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udala herrian barrena seinale berriak jartzen hasi da, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzari esker, %50ean finantzatu baitu honek proiektua. Era askotariko seinaleak izango dira herri osoan banatuak: oinezkoen zuzendurikoak, ibilgailuz doazenei zuzendutakoak, eraikinetako ormetan ezarriak, begiratokiak, edota mapak.

2009az geroztik martxan den proiektua Galemys enpresak egin du, eta Zut enpresa izan da diseinuaren arduraduna. Seinaleak diseinatu eta egiteko orduan, egun dauden seinaleak eta Eusko Jaurlaritzan nahiz nazioartean indarrean dagoen legeria jarraitzeaz gain, Adapta enpresak emandako irisgarritasun gomendioak errespetatu dira.

Bisitariari zuzendutako egitasmoa den arren, bertako herritarrek ere proiektu honen zati izatea da helburua. Batetik, seinaleztapen berriari esker Tolosaren historia eta kulturaz gehiago ikasteko aukera izango delako eta bestetik, bisitariari azalpenak ematerakoan informazio gehiago izango dutelako tolosarrek.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Garajea.** Ibarren garaje itxia salgai, Idoiaga plazan. Kotxe txikia, motorra,... edo trasteleku bezala oso egokia. Prezio interesgarria. Deitu ondorengo telefonora: 657 70 39 53.

■ **Altzariak.** Egongelako altzariak salgai. Armairua eta mahai eder bat bere banku eta aukierekin. Argazkiak ikusgai, www.iragarkilaburrak.com web orrialdean. Interesatuak deitu 629 12 28 61 telefono zenbakira.

■ **Jaka.** Aukera paregabea. Erdigunean apartamentu guztiz hornitua. Garajea eta trastelekuarekin. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 667 49 25 57.

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfondak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesatuak deitu dezentela inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04ra (Gurutze).

ALOKAIRUA

■ **Taberna.** Tolosan taberna bat alokatzen dut. Lizenzia badu, eta erreformatu beharra dago. Interesatuak, deitu 619 48 86 47 telefono zenbakira.

BESTELAKOAK

■ **Belardia.** Segan ibiltzeko moduko belaze bila gabiltza. Ikasketeko eta entrenamenduetarako erabiltzen dugu. Belarra mozteko duenak deitu 634 45 91 10 telefonora.

iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria

*martxoaren 25etik aurrera
iragarkilaburrak.com-en papereko
edizioa Gipuzkoako eta Bizkaiko
Hitza-n aurkituko duzue.*

*Papereko edizioan ordaindutako
iragarkiak soilik argitaratuko dira*

tarifak:

*Iragarki bat: 5 euro
Bi iragarki: 9 euro
Hiru iragarki: 12 euro
Bost iragarki: 17 euro*

BEZA barne

asko zabaldu gutxi ordainduta

'iragarkilaburrak.com' webgunean iragarki guztiak doan

Guztiz berria eta hornitua dagoen elkarteak izango dute jubilatuek

Udal ordezkariak bihar 13:00etan egingo dute inaugurazio ekitaldia; herritarrek lokal berria ikusteko aukera izango dute

Azken uneko arazoak direla eta, taberna zerbitzua aurrerago jarriko dute martxan

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako jubilatuek elkarte berria estreinatuko dute bihartzekoa. Lekuz aldatuko dute egoitza eta alde publikoan taberna-jatetxe zerbitzua izateaz gain, pribatua, telebista ikusteko edota jokorako gela eder bat, irakurketarako edo atsedena hartzeko beste bat, ile apaindegia eta bilera gela bat izango dituzte. Guztia, berri-berria da.

Aurreko legegintzaldian agindutakoa bete dute oraingo udal ordezkariak. Salbadore urbanizazioan etxe berriak egin zituzten eta bertako lokal batean egin dituzte obra guztiak. Diru laguntza bat baliatuz ordaindu dituzte bertan izandako gastu guztiak. Azken hilabeteetako lanen ondoren, inauguratu eta atek zabaltzeko eguna iritsi da.

Bihar, hilak 25, udal ordezkariak jubilatuko elkartekoekin batera, lokal berriari atek zabalduko dizkiete 13:00etan. Larunbat goizean ere, herritarrek gonbidatuta daude elkarte berria ikustera.

Kudeatzaileen zain

Elkarteko kide guztiek alde pribatua erabiltzeko aukera dute, baina taberna-jatetxe zerbitzua erabiltzeko pixka bat itxaron beharko dute. Arazo batzuk tarteko atzeratu egin da. Hala ere, ahalik eta azkarren saiatuko dira kudeatuko duen arduraduna aukeratzeko; eta honen ardura izango da elkarteak zabalik edukitzea.



Taberna-jatetxe zerbitzua martxan jartzeko guztia prestatzen ari dira. E. MAIZ



Jubilatu elkarteko kideek arduratu beharko dute gela hauen erabileraz. Erabilera askotako gela edota ileapaindegia dituzte. E. MAIZ

Loatzo eta Arenys de Mar, musikaren bidez lotuta

Loatzo Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek lau egun pasa dituzte Kataluniako lurretan

E. Maiz

Bi musika eskolen arteko elkartrukea baliatuz, Loatzo Musika Eskolako 72 ikasleek eta 9 irakasleek lau egunetako irteera egin zuten pasa den astean. Musikari lotutako irteera eginez, Kataluniako Arenys de Mar herrian izan dira.

Euskal Herriko mugetatik haratago joan nahi izan dute musika eskolako irakasleek. Eta Kataluniako Arenys de Mar herriko Musika Eskolarekin harremanetan jarri ondoren, elkartrukea egitea erabaki zuten.



72 ikasle eta 9 irakasle larunbatean azokan eta kaleetan barrena kalejiran ibili ziren. HITZA

Ikasleak «oso gustura» etorri direla adierazi dute irakasleek, eta bertan, beste aste batez gertatzeko gogoia ere azaldu dute ikasleek. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkie, bidaian parte hartu duten guztiei; arduradunetatik

hasi, ikasle eta irakasleetatik pasa, eta autobusez eraman zituzten txoferretaraino.

Harro itzuli dira bidaiaren arduradunak eta eskerrak emateaz gain, zoriondu ere egin dituzte euren ikasle guztiak. «Gure musika

eta kultura, Katalunian hain ondo azaldu eta zabaldu dituztelako». Eta kataluniarrek harrera ezin hobea egin zieten adierazi dute. Honen ostean, kataluniarrek beraien herrietan hartzea egokituko zaie Alegia, Altzo,

Aduna, Anoeta, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkilgo Loatzo Musika Eskolako partaide guztiei.

Bateratutako kontzertua

Denetarik egin dute musika eskolako ikasleek. Lehenik eta behin, musikariak, bertako lau eskoletatik pasa ziren lau talde ezberdinetan banatuta. Bestetik, Musika Eskolan, beraien Cor Infantil emanaldia ikusi zuten, eta gero hango eta hemengo instrumentuen inguruan eztabaidatzeko tartea izan zuten. Kaleetan eta azokan, kalejiran ibili ziren bertako *Grallak* eta buruhandiek lagun zituztela. Eta etxera buelta egin aurretik, bi musika eskolek kontzertu hunkigarria eskaini zuten, elkartrukea indartzeko.

Bartzelona bisitatzeko zortea ere izan zuten, eta kasu honetan, musika instrumentuak alde batera utzita ibili ziren.

→ **Laburrak****Herri batzarra antolatu du ezker abertzaleak gaurko**

AMASA-VILLABONA › Ezker abertzaleak herri batzarra antolatu du, gaurko, udaletxeko pleno aretoan. Batzarra 19:30ean hasiko da. Bertan bi gai jorratuko dituzte. Alde batek udal hauteskundeak, eta bestetik, herri programa. Ezker abertzalek dei egiten diete herritarrei parte hartzera.

Korrika batzordearen bilera eta mus txapelketa

AMEZKETA › Korrika batzordearen bilera egingo dute gaur, Amezketan, 19:30ean, erabilera anitzeko gelan. Batzordeak egiten duen bigarren bilera izango da. Horrez gain, etzi, larunbata, Korrikaren aldeko mus txapelketa egingo dute, Zazpi Iturri elkartearen eta erabilera anitzeko gelan. 16:00etan hasiko da, eta txapelketan parte hartzea nahi dutenek ordu erdi lehenago eman ahaliko dute izena. Bikoteko hamabi euro ordaindu behar dira. Txapeldunek afaria izango dute sarritzat eta Korrikaren Gipuzkoako mus txapelketarako sailkatuko dira. Azpitxapeldunek bi botila ardo jasoko dituzte.

Aiurri Aipamen Bereziak banatuko dituzte, gaur

LARRAUL › Aiurri aldizkariak eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 2010. urteko Aiurri Aipamen Bereziak banatuko dituzte, gaur, 19:30ean, Larraulgo Antton Amonarriz kultur etxeko ekitaldi aretoan. Aiztondo bialarako hainbat lagun izango dira sarrituak. Esaterako, oho-rezko aipamena Antselmo Larrarte larrauldarrari emango diote. Bestetik, kirol aipamena Beterriko zenbait emakume korrikalariei emango diote, tartean, Nerea Amilibia eta Aitziber Ibarbia zizurkildarrei eta Isabel Dumall asteasuarrari.

Lizarrusti-Enirio-Larraitz ibilaldia, igandean

ALEGIA › Alegiako Mendi Asanbladak urteko hirugarren ibilaldia antolatu du igande honetarako, hilak 27. Lizarrustitik Larraitzera egingo dute bidea, eta tartean Eniriotik pasatuko dira. Irteera 09:00etan izango da, betiko lekuan. Itzulera 14:00ak aldera izango dela aurreikusten dute antolatzaileek. Bestalde, Mendi Asanbladako gogorarazten dute larunbatetik iganderako gauean ordu aldaketa izango dela. Horrez gain, janaria mendizale bakoitzak berea eraman behar duela ere diote.

Txalburu eskolakoek Pirritx eta Porrotxen saioan parte hartuko dute

Bi emanaldi izango dira, larunbatean, Tolosako Leidor aretoan; bi abestitan dantza egingo dute eskolakoek

Imanol Garcia Abaltzisketa

Abaltzisketako Txalburu eskolako ikasleek, eta horiekin batera hainbat guraso eta irakasle, Pirritx eta Porrotx pailazoen Tolosan larunbatean emango dituzten bi saioetan parte hartuko dute. Izan ere, aurtengo Eskola Txikien Festa Abaltzisketan ospatuko da, ekainaren 12an. Pirritx eta Porrotxekin egin zuten festa horretako abestia, eta Tolosan saioa emango dutela aprobetxatuz, bultzada eman nahi diote.

Zehazki, Txalburu eskolakoek bi abestitan parte hartuko dute: Eskola Txikien Festakoan eta *Maita zaitut* izenekoan. Pirritx eta Porrotxekin abesten duten bitartean, Abaltzisketakoek koreografia dantzatuko dute. Azken asertean entseguak egiten ari dira.



Porrotx Txalburu eskolan izan da abestietako koreografia erakusten. HITZA

Porrotx bera eskolan izan zen koreografia erakusten. 50 lagun inguruk parte hartuko dute.

Sarrerak agortuta

Tolosako Leidor aretoan izango dira bi emanaldiak, 16:30ean eta 19:00etan. Bi saioentzako sarrerak agortuta daude.

Txalburu eskolakoek azaldu dutenez, Porrotxekin egin zuten emanaldietan parte hartzeko gonbitea. «Ikasleek ilusio handia dute», azaldu dute Abaltzisketako eskolakoek. «Parte hartze informala izango da. Ondo pasatze-ko helburuarekin joango da», gaineratu dute.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Dastatze menua

Iriarte Jatetxean
2 lagunentzako dastatze menua



Jose Mari Goikoetxea, 34 behea • Berrobi • Tel.: 943-68 30 78

2 Bazkaria

Sarasola sagardotegian
2 lagunentzako bazkaria



Asteasu • 943-69 02 83

3 Elastikoak

TTAK
2 elastiko



Neska M
Mutila M

4 Aquariuma

Donostiako Aquariumean
3 lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

2=1 kupoia

MOZTU eta erabili zure harpidedun txartelarekin batera*

DENAK TABERNA

Igaralde 4 • Tolosa • Tel.: 943 671 627

2 = 1 kupoia ogitartekoetan

Astelehenerdik ostegunera

**Ogitartekoak 2=1**

batek ordaindu eta bigarrengeak doan

IZEN-ABIZENAK
HARPIDEDUN KODEA
ERABILITAKO EGUNA

ARGITARATZE EGUNA: 2011-03-22
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

*Harpidedun bakoitzak kupoi bakarra aurkez dezake, ezin dira metatu.

harpidedunen
TXOKOA hitza info



Urtero bezala, sagardotegian egingo dute bazkaria Larresoroko eta Leaburu-Txaramako lagunek. HITZA

Larresoroko lagunaren bisita dela eta, egun guztiko festa antolatu dute

Urtero bi hitzordu izaten dituzte Larresoroko eta Leaburu-Txaramako herritarrek

M. Ugartemendia Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako herritarrek Larresoroko lagunaren bisita izango dute apirilaren 3an. Egun guztian zehar ibiliko dira jai giroan.

1996an bi herriak senidetu zirenetik, urtero elkartzen dira bi herrietako lagunak. Bi hitzordu izaten dituzte urtean zehar. Martxo-

an Larresorokoak etortzen dira hona, eta sagardotegira joaten dira. Uztailen, berriz, Leaburu-koak dira Larresorora bisitan joaten direnak. Aurten ere ez dute hutsik egingo, eta Leaburu-Txaramako herritarrek eta Larresoroko Ote Lore elkarteek sagardotegian bazkaria antolatu dute.

Egun guztiko festa

Larresoroko bisita apirilaren 3an, igandean, izango da, eta egun guztian zehar nagusituko da festa giroa.

12:00etan ongi etorria egingo zaie lapurtarrei, Lizartzako Jose Mariren aparkalekuan. Ondoren,

toka txapelketa egingo dute. 14:00etan bazkaltzera joango dira, ireki berria den Lizartzako Goikoetxea sagardotegira. Gainera, egun guztian zehar kanturako eta dantzarako parada ere izango dute. Musika eta kantua ez baitira faltako egun osoan, festa giroa areagotzeko.

Bazkarirako izena emateko, azken eguna martxoaren 30a izango da. Horretarako 620 778 618 telefonora deitu beharko da.

Aukera paregabea izango dute, beraz, Leaburu-Txaramako herritarrek Lapurdiko Larresoroko lagunekin egun pasa polit bat egingo dute.

Kale antzerkia ere ikusi ahal izango da IX. antzerki astean

Erredakzioa Zizurkil

Hilaren 28an, astelehenean, hasiko da Zizurkilgo IX. antzerki astea. *Ipuin baten gerizpean* antzez-lana izango da eskainiko den lehen antzerkia. Antzerki

gehienak kultur etxean izango diren arren, kale antzerkiarekin emango zaio amaiera antzerki asteari. Apirilaren 2an, eguraldiak laguntzen badu, *Olimpykas 2012* kale antzerkiaren gozatu ahal izango da Pasmus plazan.

↓ Egitaraua

MARTXOAK 28

■ *Ipuin baten gerizpean* (Txalo Produktzioak). Bi emanaldi antolatuko dira Atxulondo kultur etxean, 6-12 urteko herriko ikasleentzat.

APIRILAK 1

■ *Baginaren bakarrizketak* (Txalo Produktzioak). Atxulondo kultur etxean, 20:00etan. Sarrera: 3 euro.

MARTXOAK 31

■ *3, 2, zast... egizu jolas* (Lanku). 3-6 urteko herriko haurrentzat antzez-lana Atxulondo kultur etxean.

APIRILAK 2

■ *Olimpykas 2012* (Hortzmu-ga). Kale antzerkia 18:00etan Pasmus plazan. Eguraldi txarra izanez gero, Zizurkil Goiko Intxaur Frontoian egingo da.



Baginaren bakarrizketak ikusi ahal izango dira antzerkiaren astean. HITZA

Tolosa >



EMAKUMEAREN EGUNA BILBON

Tolosako landa auzoetako, hau da, Bedaioko, Urkizuko eta Aldabako emakumeak Bilbora joan ziren pasa den larunbatean. Inauterik amaitu ondoren, aitaren egunean, landa eremuetakoa amek eta emakumeek Bilbo hiria bisitatu zuten. Goize-

an, Guggenheim museoa ikusi, eta bide batez, *Emakumea Erdi Aroan* erakusketaz gozatu zuten. Bazkal ondoren, Bilboko Alde Zaharrean paseatu zuten. Giro bikainean pasa zuten eguna, eta elkar ezagutzeko aukera izan zuten. HITZA

Urdazubitik Amaiurrera egingo dute ibilaldia Mendibilekoek

Gaur amaituko da izena emateko epea; Astiz eta Maimur liburu dendetan, edo email bidez egin daiteke

M.U. Leitza

Larunbatean ibilaldia egingo dute Mendibil mendi taldekoek. 07:30ean abiatuko dira Leitza plazaetik, eta 15:00ak aldera itzuli-ko dira, berriz ere, herrira. Nahi-

koa jende elkartzeko autobusez joango dira Urdazubira. 4-5 ordu inguruko txangoa izango da. Urdazubitik abiatuko dira. Ondoren, Otsondoko gainatik eta Lizarmeakako lepotik pasako dira, Alkurruntzera (934 m) igo aurretik. Hortik, Zuetako lepora joango dira, Amaiurrera iritsi aurretik.

Izena Astiz eta Maimur liburu dendetan eman daiteke, edo baita *mendibilaurrera@hotmail.com* helbidean ere. Gaur izango da izena emateko azken eguna.

Gere eta Lemy ◊ Peachy Joke taldeko partaideak

Rockaren arrastoan jarraitzen du Tolosaldeko Peachy Joke taldeak. 'Asian Tiger Mosquito' diskoa kaleratu berri dute.

«Orain badakigu nora goazen eta zer egin nahi dugun»

Rebeka Calvo Tolosa

Hirugarren lana labetik atera berri dutela bildu dira Peachy Joke taldeko Gere teklatu-jotzailea eta Lemy gitarrista eta ahotsa HITZArekin. *Asian Tiger Mosquito* lanarekin harro daude, lana erruz egin dute, eta hori abestietan antzematen dela diote. Hamabi abesti bildu dituzte taldeak berak produzitutako lan honetan, eta gomendio bat ere egin diete entzuleei: «Diskoa altu entzun behar da, indartsu». Zuzenean entzun nahi dituenak ere, bihar izango du aukera. Donostiako Dokan joko dute 20:30etik aurrera.

Zuen hirugarren lan hau ere zuek ekoiztu duzue. Nolakoa izan da prozesua?

Lemy: Gure diruarekin eta gure ballabideekin kaleratu dugu lan hau ere. Lehendabizi gure lokalean grabatu genuen, eta ondoren hasi gara lana mugitzen. Aipatu behar da, dena den, Scene Nationale Bayonnek ere lagundu gaituela.

Gere: Lan hau, aurrekoa bezala,

Subizan, Iruñean, grabatu dugu. Eta masterizazioa Atlantán, Rodney Millsekin egin dugu. Oasis eta Pearl Jam taldeekin egin du lan Millsek. Soinu profesionalagoa lortu dugu lan honetan.

Izen berezia, 'Asian Tiger Mosquito'. Zergatik izenburu hau?

Gere: Bartzelonan udaran beti egoten da eltxo batzuen plaga moduko bat, eta hauxe da izen zientifikoa. Garajea entseatzeko, eltxo hauen milaka ziztada izaten ditugu, eta horregatik.

Duela urte bete inguru egin zenuten Bartzelonara joateko apustua, nola doa abentura?

Gere: Bartzelonan denak batera bizi gara, etxe berean, eta han ordu asko sartzen ditugu garajea entseatzeko. Kontzertu gehiago eman ahal izateko joan ginen Bartzelonara, eta gustura gaude.

Rockaren bidetik jarraitzen duzue?

Gere: Soinua hori da, hori da gure estiloa. Guk 70eko eta 80ko hamarkadako rocka jorratzen dugu, baina dantzarako kutsua ere ematen diegu abestiei. Nahasketa egiten dugu, lehenagoko soi-



ANNA MARTORANO

nu hori oraingo erritmoeekin nahastuz.

Aurreko diskoarekin, 'The Grey Reville'ekin, zuzeneko asko eman dituzue, zein balorazio egiten duzue?

Lemy: Ona. Kontzertuetan oso gustura egoten gara, eta baita jendea ere. Gure musika dantzatzeko da, mugitzeko.

Gere: Antzematen duguna da Bartzelonako kontzertuetan jende gehiago gerturatzen dela. Hazten goazen taldea garena esan daiteke. Iaz kontzertu asko eman genituen, 50 inguru, eta orain, martxoan, hasi gara berriz ere; pasa den asteburuan Iruñean jo genuen, gaur bertan Euskadi Gaztean akustiko bat eskainiko dugu, bihar Donostian joko dugu, eta larunbatean Gasteizen eta igandean Madrilen joko dugu. Ondoren Bartzelonara itzuliko gara.

Zaila al da zeuek ekoiztiko lan batekin musika zirkuituan sartztea?

Lemy: Oso zaila. Gure ballabideak eskasak dira. Diru asko izanez gero promozioa egiteko aukera dugu; Mondo Sonoro aldizkariak azalean aterako zarela bermatuz, irrati hilabetez egoteko..., baina guk ezin dugu hori egin.

Gere: Hala ere, zortea ere badugu; Bartzelonan inguruan ditugun

asko eta asko mundu honetan aritzen dira, eta horrek asko laguntzen gaitu. Pasa den astean, esate baterako, bideoak grabatu genuen, eta lagunez inguratuta egin genuenez, doan atera zaigu, baina emaitza profesionala da, oso txukuna.

Ez zarete hasiberriak, eta horrek ere beste sendotasun bat emango dizue, ezta?

Gere: Taldean bospasei urte daramatza, baina bakoitza bere kabuz, bere instrumentua astintzen, 11 bat urte goaz.

Zein ibilbide egiten duzue diskoan abestien bidez?

Lemy: Abestiak oso desberdinak dira beren artean; kantu batzuk duela hiru hilabete bukatu genituen eta beste batzuk, aldiz, duela urte bete edo prestatu genituen.

Gere: Niri diskoak abestiak era askotakoak direla iruditzen zait: abesti batzuk oso rockanronlerak dira, 60. hamarkadako rocka burura ekartzen dutenak; badira erabat rockeroak direnak, oso indartsuak; beste batzuetan rock klasikoagoa jorratu dugu; eta badira modernoagoak, dantzagarriagoak, direnak ere. Arrasto berean doaz, betiko Peachy Joken soinuean, baina kantu batetik bes-

tera alde dago. Hala ere, ahotsengatik, teklatuen eta gitarren soinuarengatik Peachy Joke da, zalantza gabe.

Lemy: Nik esango nuke orain kanta landuagoak egiten ditugula, eta badakigula nora goazen eta zer egin nahi dugun. Behar bada, lehen bagenekien 50eko soinu hori nahi genuela, baina zorte pixka bat ere bagenuen hori lortzeko. Orain ez, orain nahita goaz soinu baten edo bestearen bila.

Errazagoa ala zailagoa al da orain, bilatzen duzuenara iristea?

Lemy: Errazagoa, zalantza gabe. Abesti guztiak udarako bukatuta genituen. Aurreko diskoa atera eta hiru hilabetetara ia guztia prest geneukan. Abestiak grabatu egin behar dira ondoren, produkzioa egiten denbora eman dugu... Horrek luzatu du guztia.

Zuzeneko taldea zaretela esan al daiteke?

Gere: Hori gure indarguneetako bat da, zuzeneko indartsua dugula. Zuzenean ikusten gaituzten askok errepikatu egiten dute. Eta horrek poliki-poliki publikoa gureganatzeko aukera ematen digu. Diskoetxe gabe lan egiteak hori ere badakar; zuzenekoetan guztia eman behar dugula.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Herria Abian! plataformak antolatutako *Egungo sistema ekonomikoaren eraginak Tolosaldean* mahai-ingurua gaur, 19:30ean kultur etxean. Mahai-ingurua euskaraz izango da.
- **Aduna.** Asvineneak afrikar dantzen ikastaro trinkoa antolatu du apirilaren 2rako. Ikastaroak 20 euro balio du, baina bazkide direnek 15 euro ordaindu beharko dute. Tailerra Ainhoa Agirrezabalak emango du, eta perkusioa zuzenean joko dute. Izena www.asvinenea.com webgunean edo 665 738 081 telefonora deituta eman daiteke.
- **Aiztondo.** Aiztondo Mankomunitateak Artziniegara joateko irteera antolatu du martxoaren 29rako. Irteeran Larraul, Alkiza, Zizurkil eta Adunako jubilatuek hartu dezakete parte. Izena emateko 943 69 39 30 telefonora deitu behar da.
- **Leitza.** Kiroldegiak eskalada ikastaroa antolatu du 10 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat. Ikastaroa hilaren 26ean, apirilaren 2, 9 eta 16an, eta maiatzaren 7an izango da 09:00etatik 13:00etara. Izena kiroldegian bertan eman daiteke, eta bihar da azken eguna. 948 51 07 19 telefono zenbakian eskuratu ahal da informazio gehiago.
- **Ibarra.** Txontxo udal ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Eskaera egiteko derri-gorrezkoa da begirale titulua eta EGA izatea. Ibartarrek lehentasuna izango dute. Curriculumak ibarra@ikastola.net era bidali behar dira '2011ko begiraleak' gaia zehaztuz. Apirilaren 8a da eskaerak egiteko azken eguna.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Ugarte, L. L. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Hasi da ahozkotasunari eskainitako jaialdia

Pasa den larunbatean hasi zuen Doro Zobaran ipuin kontalariak Asvinenearen Ahoz Aho jaialdia

Eredakzioa Tolosa

Hasi da jada, Ahoz Aho jaialdia. Urtero bezala Asvinenea Arte Eszenikoan Laborategiak antolatu

du ahozkotasunaren jaialdia, eta beti bezala, askotariko emanaldiak antolatu dituzte.

Ipuin Txikien Gala

Ikuskizunak Tolosako leku desberdinetan izango dira, bakarra kenduta: Ipuin Txikien Gala.

Azken hau, Asvinenean bertan, Adunak, izango da etzi, ostirala, 23:00etatik aurrera.

Tolosarekin batera, dena den, Ordizian ere izango da Ahoz Aho

jaialdiarekin gozatzeko aukera. Izan ere, Tolosan egongo diren asko Ordiziako Urdaneta ikastetxean eta Jakintza ikastolan izango dira. Era berean, ipuin poteoa ere egin zuten Ordiziako tabernea-tan pasa den larunbatean.

Asteburu honetan, Tolosan, Congoko Bertrand N'Zoutani eta Robert Mavoula, Kataluniako

Asun Rodriguez, Venezuelako Ana Torrellas, Valentziako Mayge Torrente, Doro Zobaran bizkaitarra, eta Irantzu Mantxo tolosarraren emanaldiak ikusi ahal izango dira. <

Ahoz Aho jaialdiko azken ikusizuna Koldo Ameztorena izango da apirilaren 8an, 20:30ean Tolosako kultur etxean.

↓ **Egitaraua**

MARTXOAK 24, GAUR

- **Helduen Hezkuntza Iraunkorrek eskola (Igaralde, 23), 16:00.** Argentinako Jose Campanari eta Mexikoko Mercedes Hernandez.
- **Amarotz, 17:30.** Anduriña eta Txeforen *Baduti* ikuskizuna.
- **Otsabi, 20:30.** Kataluniako Asun Rodriguez, Venezuelako Ana Torrellas eta Valentziako Mayge Torrente.

MARTXOAK 25, BIHAR

- **Asvinenea (Zubi txiki industriagunea, Aduna), 23:00.** Ipuin Txikien Gala. Artista guz-

tiak hartuko dute parte emanaldian.

MARTXOAK 26, ETZI

- **Bonberenea, 11:30.** Doro Zobaran.
- **Otsabi, 17:00.** Congoko Bertrand N'Zoutani eta Robert Mavoula.
- **San Esteban, 19:30.** Kataluniako Asun Rodriguez, Venezuelako Ana Torrellas eta Valentziako Mayge Torrente.

MARTXOAK 27, ETZIDAMU

- **Bonberenea, 11:30.** Irantzu Mantxo.



Doro Zobaran Amarotzeko emanaldian. HITZA

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE APIRILAK 2
larunbata, 11:00 *master akademiko*

ORDIZIA MARTXOAK 26
larunbata, 11:00

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI APIRILAK 2
larunbata, 11:00

IRUN APIRILAK 9
larunbata, 11:00

ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!

902 110 436 www.mondragon.edu/prest

bestso saioa
bestso saioa

BERTOLARIK
BERAT GAZTELUMENDI
SON MAIA
OSTER HENDILUBE
MAREN AMURIZ
AMETS ARBALLUS
SUSTRAI CORDINA
ON TARTARILLA
UNAN ELIZACO

APRILAK 18

90 000

902 82 02 01

hitza